

Ezpalak

JON TORNER


Iñigo Aranbarri eta Carlos Ruiz Zafon idazleek jasoko dute Zilarrezko Euskadi Saria, Donostiako Liburu Azokan gehien saldu diren eleberriak beraienak izan direlako. Euskarazkoen artean *Zulo bat uretan* nobela (Susa) gailendu da, eta gaztelaniaz idatzitakoan artean *El juego del ángel* (Planeta).

Ilan Wolf artista israeldarraren argazkiz osatutako *Camera Obscura* izeneko erakusketa zabaldu dute Donostiako Kursaal-eko Kubo aretoan. Irudi guztiek Donostia erakusten dute, baina ikusleak ezagutzen ez duen ikuspegi batek, distortsionatuta baitaude. Erakusketa ekainaren 29a arte izango da ikusgai.



Uxue Alberdik irabazi du Gabiriko (Gipuzkoa) Osinalde elkartearen jokaturako Osinalde Bertso Sarietaren 37. edizioa. Entzuleen saria Julio Sotok jaso zuen eta saioko bertso onenaren saria, berriz, Alaia Martinek.

Matthew Ritchie, David Altmeyd, Javier Perez eta Rirkrit Tiravanija artisten instalazioak jarri dituzte ikusgai Bilboko Guggenheim Museoa. Erakusketa 2009ko urtarrilaren 11 arte izango da zabalik.



Guikuri Nekazal Etxea

Guikuri, 1 Tel.: 945 464064
01138 Murua (Araba) 015 782323
guikuri@euskalnet.net www.guikuri.com

Fernando Velázquez konpositorea sarituko du FANT zinema jaialdiak

FANT BILBOKO ZINEMALDI FANTASTIKOA maiatzaren 8tik 16ra bitartean egingo da. Dozena bat film lehiatuko dira Sail Ofizialean, horien artean Malagako Zinemaldiko sari nagusia irabazi zuen *3 días* pelikula espainiarra. Horiez gain, film labur zahar eta berriak proiektatuko dituzte Bilboko areto desberdinetan; baita Nontzeberri atariak antolatutako Nontze-flash Animaziozko Filmen Lehiaketan eta Nontze-film Film Laburren Lehiaketan saritutako lanak ere. Hitzaldiek, kontzertuek eta Fant Lab egitasmoak osatuko dute egitaraua. Zinemaldia- ren 14. edizio honetan, Fernando Velázquez musikagile bizkaitarrak jasoko du Fantrobia Saria. *El Orfanato* filmerako konposatu zuen soinua bandak egin du ezagun Velázquez. Interneten: www.fantbilbao.net.



Zabalik da kulturgintzari buruzko graduondokoa izena emateko epea

ARTEOLA ELKARTEAK eta Mondragon Unibertsitateko (MU) Huhezi fakultateak antolatuta, kulturgintza transmisioari buruzko graduatu ondoko ikastaroa eskainiko dute bigarrenkoz Eskoriatzan. Unibertsitateetako irakasleek eta kultur eragileek (musikari, bertsolari, idazle eta abarrek) emango dituzte klaseak. Matrikula egiteko epea maiatzaren amaieran itxiko da. Antolatzailerik 60 laguneko taldea osatzea dute helburu. Bukatzear den ikasturte honetan, besteak beste, Benito Lertxundik, Xabier Letek, Bernardo Atxagak, Mari Jose Olaziregik, Andoni Egaña, Jon Sarasuak eta Fermin Mugu- ruzak parte hartu dute.

Maddi Oihenart abeslariak
Diario de Noticias-en: «*Hari- biru* diskoa nire izenean kale- ratzea diskoetxeak erabaki du, industriaren beharra dela eta. Ni gaizki sentitzen naiz bakarlarri moduan, zeren bakarrik ezingo nuke ezer egin, ez nuke kantan aritzeko gogorik, ez lehen ez gero».

gara hemen asko, eta uste dut hori baino profesionala- gorik ez dagoela. Nire iritziz dantzari begira bizi garenak, dantza gure lehentasuna, gure bokazioa eta gure inter- resgune nagusia dugun guz- tiok gara ADDEko kide izateko egokiak».

Oier Araolaza dantzariak
Dantzing webgunean: «Elkar- te Profesionala dela dio Eus- kal Herriko Dantza Elkarte Profesionalak (ADDE). Dantzaren alorreko profes- ionalen elkarte dela esan nahi du horrek? Zer da dan- tzaren profesionala izatea? Dantzatik bizitzea bada, uste dut oso gutxi izan daitezke- la hemen eta orain dantzaren profesionalak. Baina dantza- tik baino dantzarako bizi

Alber Vazquez idazleak
Diario Vascon: «Errealitatera hurbiltzeko era guztiak pro- batu ditut eta zentzuzkoena umorea iruditu zait. Ikus- puntu guztietatik antzeko ondorioetara iritsi zaitezke, baina umorearekin behintzat barre egiten duzu. Idazle askori paperean idatzitakoa kutsatzen zaigu. Beraz, tes- tua tristea bada deprimitu egiten zara, eta alai bada, errealitateari grazia puntua topatzen diozu».